

eman ta zabal zazu




Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Arte Eszenikoak

USE 2019

www.ehu.es



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.
Ez ahaztu azterketako orri bakoitzean kodea jarri behar duzula.***

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal):

1. atala. Obraren iruzkina eta analisisa

(4 puntu)

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisa:

- a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
- Antzerki-generoa (0,5 puntu).
 - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
 - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).
 - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (0,5 puntu).
- b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
- Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa (0,5 puntu).
 - Egilearen ideia artistikoak (0,5 puntu).
 - Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den (0,5 puntu).
 - Garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (0,5 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisan, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarri buruzko ezagutzak.

2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina

(3 puntu)

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (1 puntu).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (1 puntu).
- Testuan ageri diren ideiei buruzko iritzi pertsonala, zure eszenaratze-esperientzietan oinarritua (1 puntu).

3. atala. Termino teknikoei buruzko galderak

(3 puntu)

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

A AUKERA

1. atala. Iruzkina eta azterketa. (4 puntu)

Aristofanes: *Lisistrata*

2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina (3 puntu)

Bretch, B. *Hirugarren Reich-aren izua eta miseria* («*Furcht und Elend des Dritten Reiches*»)

3. atala - Termino tekniko hauek definitzea (3 puntu)

1. Figurantea
2. Sinbolismoa
3. Ordukako antzerkia
4. Goi-komedia
5. Frisoa (banbalina)
6. Hondoko oihala

B AUKERA

1. atala. Iruzkina eta azterketa (4 puntu)

Ibsen, H. *Panpina-etxea*

2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina (3 puntu)

Mayorga, J. *Azken lerroko mutila*

3. atala - Termino tekniko hauek definitzea (3 puntu)

1. Antzerki epikoa
2. Il capitano
3. Fartsa
4. Happening-a
5. Antzerki existentzialista
6. Komedia-barla



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

EKAINA 2019

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2019

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

A AUKERA

Iruzkina eta azterketa. *Lisistrata*. Aristofanes

(*LISISTRATA Akropolitik irteten da, atea zabalduz.*)

LISISTRATA. Ez jarri palankarik inon. Neu irtengo naiz, inork ni behartu gabe. Zertarako barrak? Ez da barrarik behar, sena eta burua baizik.

KOMISARIOA. A bai, e, zerria halakoa? Non dago arkularia? (*Arkulariari.*)

Atxilotu eta lotiezazkiuzu eskuak bizkarrean.

LISISTRATA. Ala Artemis, atzamar baten puntarekin ukitzen banau, larrutik ordainduko du, agente publikoa bada ere.

KOMISARIOA. (*Arkulariari.*) Zer, beldurra ematen dizu ala? Ez al diozu gerritik helduko -eta zu (*Beste arkulari bati*), berarekin- eta bion artean lotuko behingoz?

(*KLEONIZE Akropolitik irteten da.*)

KLEONIZE. (*Lehen arkulariari.*) Ala Pandroso, ukitzen baduzu, nahiz eta eskuarekin baino ez bada ere, epelak hartu behar dituzu, txikitu egingo zaitugu.

KOMISARIOA. Begira, «epelak hartu behar dituzu». Non dago beste arkulari bat gehiago? (*Hirugaren arkulari bati.*) Lotu hau lehenengo, ze, gainera, ahohandi hutsa da. (*MIRRINA iristen da.*)

MIRRINA. Ala Luzifera, atzamar baten punta gainean jartzen badiozu, berehala eskatu beharko duzu bentosa bat.

KOMISARIOA. Zer gertatzen da? Non dago arkulari bat? (*Laugarren arkulari bati.*) Harrapa ezazu emakume hori. (*Emakumei.*) Nik emango diet amaiera zuen irteerei, banan-banan.

LISISTRATA. Ala Taurika, harengana hurbiltzen bazara, ilea erauziz garrasi eginaraziko dizut.

(*Badoa arkularia.*)

KOMISARIOA. Oi, nire dohakabea! Eremitik joan da arkularia. Baina ez dugu inoiz etsiko emakumeen aurrean. Aurrera egin dezagun borroka-lerroan jarrita, eszitiarrok, joka hasi arte.

LISISTRATA. Ala jainkosak, orain jakin behar duzue gure artean badirela lau emakumezko-batailoi borrokarako prest, erabat armaturik, hor barruan.

KOMISARIOA. Bihurritu haiei besoak bizkarrean, eszitiarrok.

LISISTRATA. (*Gotorlekura zuzenduta.*) Emakume aliatuok, irten korrika barrutik; azokako ale-, pure- eta barazki-saltzaileok, ostalariok eta baratxuri- eta ogi-saltzaileok, ez al duzue arrastatuko, kolpekatuko, puskatuko? ez al duzue irainduko eta ez al zarete lotsagabetuko? (*Erasora irteten dira emakumeak Akropolitik, eta eszitiarrok ihesi doaz.*) Gelditu jada, egin atzera, ez arpilatu. (*Lehen agertu diren emakumeak gotorlekura itzultzen dira.*)

KOMISARIOA. Ai, ene! Zein gaizki joan zaien nire arkulariei.

LISISTRATA. Hara!, zer uste zenuen, ba? Uste zenuen emakume esklabo batzuei eraso egiten zenielara? Ala zer uste duzu, emakumeek ez dutela adorerik?

KOMISARIOA. Bai, ala Apolo, eta adore handia, baldin eta inguruan tabernariren bat badago.

KORIFEO GIZONEZKOA. Alferrik isuritako hitz asko, lurralde honetako komisarioa. Zergatik liskarrean aritu pizti horiekin? Ez dakizu zer bainu oparitu diguten orain dela gutxi, arropa soinean, eta, gainera, xaboirik gabe?

KORIFEO EMAKUMEZKOA. Motel, hurkoari ezin zaio eskua gainean jarri ezer ez balitz bezala; hori egiten baduzu, nahitaez begiak puztuta edukiko dituzu. Izan ere, nik



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

EKAINA 2019

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2019

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

hemen geldi-geldi egon nahi dut, neska gaztetxo bat bezain zuhur, hemengo inor gogaitu gabe eta lasto bat ere mugitu gabe, baina baten batek ezta xurgatzen badit, sumindu egiten naiz, liztor-habia baten moduan.

ZAHARREN KORUA. Zeus, nola tratatu behar ditugu munstro hauek? Ez baitago horrela jarraitzerik: aztertu behar duzu nirekin zer gertatzen ari den hemen, zer asmorekin eta zertarako bereganatu duten emakume hauek Malkarra, Akropolia, gaitzeko arroka, zeharkaezina, esparru sakratua.

KORIFEOA. Egin galderak, ez utzi limurtzen, kontra egin haiei ahal duzun guztia: lotsagarria litzateke horrelako gai bat bazterrean uztea, hartaz hitz egin gabe, eta aintzat ez hartzea.

KOMISARIOA. Ala Zeus hau da lehenengo gauza jakin behar dudana: Zertarako itxi duzue gure gotorlekua atalagekin?

LISISTRATA. Dirua ondo gordetzeko eta harengatik ez zaitezten borrokatu.

KOMISARIOA. Diruagatik borrokatzen gara, ala?

LISISTRATA. Bai, eta beragatik pizten dira gainerako istiluak ere. Zeren eta Pisandrok eta postu publikoen bila dabiltzanek, lapurtzeko, beti iskanbilaren bat sortzen zuten. Beraz, hauek egin dezatela nahi dutena gai honetan, ze diru hau, behintzat, jada ezin dute harrapatu.

KOMISARIOA. Zer egin behar duzu?

LISISTRATA. Hori galdetzen didazu? Geuk gobernatuko dugu.

KOMISARIOA. Zuek gobernatuko duzuela?

LISISTRATA. Bai, eta zergatik harritzen zara? Ez al gara gu etxeko guztia gobernatzen dugunok?

KOMISARIOA. Baina ez da gauza bera.

LISISTRATA. Nola ez dela gauza bera?

KOMISARIOA. Diru hori kontuan hartuta egin behar da gerra.

LISISTRATA. Baina, ezer baino lehen, gauza bat: gerra ez da egin behar.

KOMISARIOA. Orduan, nola bestela egongo gara salbu?

LISISTRATA. Guk salbatuko zaituztegu.

KOMISARIOA. Zuek?

LISISTRATA. Bai, guk.

KOMISARIOA. Harrigarria!

LISISTRATA. Kontuan izan salbatuko zaituztela, nahi ez baduzu ere.



A AUKERA

Antzerki-teoriaren edo kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina

Brecht, B. *Hirugarren Reich-aren izua eta miseria* («*Furcht und Elend des Dritten Reiches*»)

Hirugarren Reich-aren izua eta miseria obraren kritika. Autorea: Bertolt Brecht.

Kritika: 'Hirugarren Reich-aren izua eta miseria': konplizitateak, aktiboak edo pasiboak, diktaduraren munstroa sortzen du. Egilea: José Miguel Vila (*Diario crítico*, 20-09-2016)



Argazkia: <http://fundacionsiglofuturo.org/wp/la-compania-martes-teatro-de-manuel-galiana-pone-en-escena-terror-y-miseria-del-tercer-reich-de-bertolt-brecht-en-el-teatro-moderno-de-guadalajara/>

'Hirugarren Reich-aren izua eta miseria': konplizitateak, aktiboak edo pasiboak, diktaduraren munstroa sortzen du

[...] Óscar Olmedak zuzendutako lan hau autore alemanaren testuaren gaineko bertsio libre bat da; erabaki du guztiz leiala izatea Brechten interpretazio-kanonarekiko, eta distantzia nabarmena ezarri du aktoreen eta ikusleen artean (antzerki epikoa). [...]

'Hirugarren Reich-aren izua eta miseria' Alemaniako eta atzerriko prentsako kroniketan oinarritzen da, batetik, eta, bestetik, Brecht-ek bere herrikide askoren esperientzia pertsonalen bidez jasotako konfidentzietan. Pertsona anonimoen istorioak dira guztiak. Erregimen politiko baten balioek eta ekintzek eragin ezabagaitza izan zuten haien bizitzetan, eta pertsona horiek berek lagundu zuten erregimen hori sortzen, garatzen eta mantentzen, beren isiltasunaren, ekintzarik ezaren, beldurraren eta koldarkeriaren bidez. [...]

Olmedaren bertsioan ez daude Brechten originaleko atal guztiak (24 eszena), baizik eta 13 soilik. Gainera, publikoaren lankidetzaz zuzeneko eta etengabea da, ikusleek



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

EKAINA 2019

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2019

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

erabakitzen baitute eszenak zer ordenatan antzeztu, aktoreek eskaintzen dieten karta erraldoien sortan aukerak eginez. Hala, antzeppen guztiak dira desberdinak, zoriak erabakitzen baitu funtzio bakoitza nolakoa izango den (“erabakitzeko askatasuna...”, protagonisten hitzetan). Bete-betean asmatu du zuzendariak dramaturgian; izan ere, azken batean, eszenan agertzen den panorama berdina izango da beti. [...]

Ikusleak, antzokian bere eserlekuaren bila dabilen bitartean, heavy metala entzuten du bozgorailuetatik, eta bere baitan pentsatzen du: “zer zerikusi ote du musika honek Hirugarren Reich-arekin?”. Musika bera entzuten da antzeppen diren atalen artean ere. Óscar Olmedak berak argitu digu –guk uste genuen bezala– musika hori ez dela besterik gabe hautatua, eta entzuten diren kantu guztien hitzak daudela zuzenean erlazionatuta antzeppen agertokian bizitzen den alderdiren batekin; eta, hain zuzen, lagundu egiten dute 14 aktoreek osoko jantzi beltza (eta gerriko gorria, autoritatea agertzen dutenean) soinean dutela ikusleengan sortzen duten ezinegona eta sosegurik eza eragiten.

Eguneroko istorio txiki eta handi guztiak eszenografia soil batean gertatzen dira. Argiontzitxo batzuk sabaitik zintzilik, *vintage* estiloko zutikako lau lanpara eta bi besaulki baino ez daude. Aktoreak istorio horien zerbitzura dauden tresnak dira, inoiz baino gehiago Brechten antzerki epikoan. Behar besteko trebeziak eta doitasunez mugitzen dira agertokian eta besaulki-patioan. Batzuetan, istorioetako protagonista gisa; beste batzuetan, protagonisten gainera erortzen den kontzientziaren koru gisa –greziar erara–, hala, protagonistak etengabe epaituak, behatuak, salatuak... sentitzen direla [...]



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

EKAINA 2019

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2019

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

B AUKERA

Iruzkina eta azterketa. Ibsen, H. *Panpina-etxea*

NORA: Zortzi urte daramagu ezkondua. Ez al zara konturatzen gaur lehen aldia dela zuk eta nik, senar-emazteok, serio hitz egiten dugula?

HELMER: Zer esan nahi duzu?

NORA: ¡Zortzi urte... gehiago oraindik! Elkar ezagutu genuenetik, ez dugu elkarrizketa serio bat ere izan.

HELMER: Egin behar al zintudan, bada, nire kezken konfiantzako gordetzaille, jakinda zuk ezin zenidala lagundu konpontzen?

NORA: Ez naiz kezkez ari. Esaten ari naiz ez dugula inoiz serio hitz egin, ez garela inoiz saiatu elkarrekin iristen gauzen muinera.

[...]

NORA: Erabat bakarrik egon behar dut, neure buruari buruz eta inguruan dudanari buruz orientatzeko. Ezin naiz gelditu gehiago zurekin.

HELMER: Nora, Nora!

NORA: Oraintxe bertan alde egin nahi dut. Pentsatzen dut Cristinak utziko didala gaua pasatzen bere etxean...

HELMER: Erotu al zara?... Ez dizut utziko! Debekatu egiten dizut!...

NORA: Gertatua gertatuta, alferrik da orain zuk niri ezer debekatzea. Nirea den guztia eramango dut. Ez dut nahi ezer zugandik, ez orain eta ez inoiz ere.

HELMER: Zer erokeria da hori?

NORA: Bihar, nire etxera joango naiz... hau da, nire herrira. Hala, errazagoa izango zait lana aurkitzea.

HELMER: Itsu zaude gero, eskarmenturik gabeko umea!

NORA: Saiatuko naiz ni eskarmentua hartzen, Torvaldo.

HELMER: Zure etxea, zure senarra, zure seme-alabak abandonatzea!... Eta jendeak zer esango ez al duzu pentsatu?

NORA: Ezin ditut pentsatu xehetasun horiek. Gauza bakarra dakit: ezinbestekoa dela niretzat.

HELMER: O, gorrotagarria da! Betebehar sakratuenei horrela traizioa egitea!

NORA: Zeri esaten diozu zuk betebehar sakratuenak?

HELMER: Esan behar al zaizu? Ez al dira, bada, zure senarrekiko eta seme-alabekiko betebeharrak?

NORA: Baditut beste betebehar batzuk ez gutxiago sakratuak.

HELMER: Ez duzu holakorik. Zer betebehar dira horiek?

NORA: Neure buruarekiko betebeharrak.

HELMER: Beste ezeren aurretik, emaztea eta ama zara.

NORA: Dagoeneko ez dut horretan sinesten. Uste dut beste ezeren aurretik gizakia naizela, zu bezala... edo, behintzat, izaten saiatu behar dudala. Badakit gizon gehienek arrazoia emango dizutela, eta badagoela halako zerbait liburuetan idatzia. Baina orain ezin naiz kontentatu gizonek esaten dutenarekin eta liburuetan idatzia dagoenarekin. Neure kabuz pentsatu behar dut honetan guztian, eta ulertzen saiatu.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

EKAINA 2019

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2019

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

B AUKERA

Antzerki-teoriaren edo kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina: Mayorga, J. *Azken lerroko mutila*.

Elkarrizketa Juan Mayorga *Azken lerroko mutila* obraren autoreari. Galileo antzokia-*Público* egunkaria; elkarrizketatzailea: Miluca Martín (*Público*, 2013-10-28)

<http://elasombrario.com/el-chico-de-la-ultima-fila-vuelve-al-teatro-tras-arrasar-en-el-cine/>



Argazkia: <http://ocio.laopiniondemurcia.es/agenda/noticias/nws-136252-el-teatro-circo-murcia-recibe-chico-ultima-fila.html>

Azken lerroko mutila, Juan Mayorgak idatzia (Madril, 1965), Víctor Velascok zuzendua eta Galileo antzokian estreinatua, ikuspegiari buruz diharduen obra bat da; besteei begiratzeak sortzen duen ikusminaz dihardu, eta besaulki-patiora luzatzen du begirada hori.

[...]

Zer iruditzen zaizu Víctor Velascoren muntaketa?

Oso irudimentsua; espazio poetiko bat da, espazio erreal iradoki bat. Errotiko antzerkia da. Ikasmahai batzuk agertokiaren erdian lerrokatuak, besterik ez, eta agertokiaren koloreak oroitzen pizten dizkigu, gozamenen eta atsekabeen leku gisa. Hori bihurtzen da obraren espazio guztien gune: eskola, irakaslearen eta Claudioren lagun Rafaren etxeak, Germanen emazte Juanaren lantokia. Eszenografia horretan, bada zerbait Velascok baliatzen duena: sei pertsonaiak agertokian etengabe daudenez, planoekin jokatzeko berak, eta, hala, gerta daiteke guk Claudioren kontakizuneko bi pertsonaia berak irudikatzen dituen bezala ikustea, eta ikustea Juana, irakaslearen emaztea, Claudiok idatzi duena irakurtzen eta keinu bidezko iruzkinak egiten; eta hori ez dago idatzita, testuan inkubatuta dago, baina, antzerki-planoen maneiatze adimentsu horri esker, idatzi ez zuen zerbait aurkitzen du askotan. Oso argi dudan esperientzia da hori, hau da, testuak badituela gauza batzuk egileak ez dakizkienak.

[...]



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

EKAINA 2019

EVALUACIÓN PARA EL
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JUNIO 2019

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

Zer iritzi duzu François Ozonen film sarituari buruz [Azken lerroko mutila antzerki-testuan oinarritua dago]?

Bikaina iruditzen zait. Zuzendariaren irudimena ikusten da filmean: lortu zuen obra hizkuntza zinatografikora, mundu frantsesera eta bere mundura eramatea. Baina filmari buruz galdetzen didatenean, beti gogorarazten dut —eta neure buruari gogorarazten diot— zinema, nire ustez, ez dela antzerkiko jendearentzako Champions League bat; zinema arte aparta da, baina antzerkia ere bai, eta, gainera, antzerkian ikusten duguna ez da autorearen edo zuzendariaren irudimena, ikuslearen irudimena baizik. Antzerkiak eskaintzen duen desberdintasun aparta da. Obran ikusten den eskola zeuk zeure eskarmentutik edo zeure nahitik sorrarazten duzuna da, zeuk sufritu edo desiratu zenuen eskola. Han agertzen dena ikusle bakoitzaren ametsak eta amesgaiztoak dira.

Zuzendaria: Víctor Velasco · Antzezleak: Samuel Viyuela, Miguel Lago Casal, Rodrigo Sáenz de Heredia, Olaia Pazos, Sergi Marzá eta Natalia Braceli.

2019



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

1.- Alderdi orokorrak

2019ko urtarrilaren 14ko PCI/12/2019 Aginduak zehazten du zer ezaugarri, diseinu eta eduki izan behar dituen unibertsitatera sartzeko Batxilergoko ebaluazioak 2018/2019 ikasturtean (2019ko urtarrilaren 15eko BOE).

Batxilergoko titulua edo haren baliokideren bat dutenentzako probaren helburua hau da: ikaslearen heldutasun akademikoa objektiboki balioestea, eta Batxilergoan eskuratutako ezagutzak eta gaitasuna eta graduko unibertsitate-irakaskuntza ofizialak egiteko gaitasuna baloratzea.

2016ko irailaren 6ko 127/2016 Dekretuak EAeko Batxilergorako berezko curriculum ezartzen du. Curriculum hori dago indarrean gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, estatuko oinarrizko curriculum ezartzen duen araudian ezarritakoaren kalterik gabe. Horrenbestez, 127/2016 Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa du erreferentziatzat Arte Eszenikoen azterketak.

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_2_proyec/adjuntos/Decreto_127_2016_bach_c.pdf

Geroago, Hezkuntza Sailak eduki-blokeen eta adierazleen (edo ebaluazio-estandarren) garapen osoa argitaratu du, orientagarri izan dadin. Helbide honetan dago gai bakoitzaren curriculum osoa:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/es_2_proyec/adjuntos/Curriculum_completo_bachiller.pdf

Batxilergoko curriculumean oinarrizko eskumenak sartu direnez, justifikatuta dago *egiten jakitera* bideratutako ariketak proposatzea, ahalik eta modurik objektiboenean neurtu ahal izateko ikasleak arlo hauetan eskuratutako gaitasuna: arte eszenikoak arte-agerraldi gisa eta fenomeno unibertsal gisa ulertzea, eta obra eszenikoen eta haien autore eta emaitza nabarmenen ezagutza historiko, kultural, soziologiko eta estetikoak.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

2. – Espezifikazio-matrizea

Eduki-blokea	Ikasketa-estandar ebaluagarriak
1. blokea. Arte eszenikoak eta haien testuinguru historikoa.	<ul style="list-style-type: none">- Ingurunean dagoen ikuskizun eszeniko bakoitza identifikatzen du haren ezaugarrien arabera.- Antzezpen mota bakoitzaren ezaugarriak azaltzen ditu, hiztegi espezifiko eta egokia erabiliz.
2. blokea. Adierazpen eta komunikazio eszenikoa.	<ul style="list-style-type: none">- Zuzen eta zehatz erabiltzen ditu adierazpen eta komunikazio eszenikoan parte hartzen duten elementuei dagozkien kontzeptu guztiak.
3. blokea. Interpretazioa arte eszenikoetan.	<ul style="list-style-type: none">- Interpretazioaren teoriak ezagutzen ditu, eta modu arrazoituan azaltzen.
4. blokea. Antzezpena eta eszenaratzea.	<ul style="list-style-type: none">- Zehazki identifikatzen ditu rolak eta rol bakoitzaren berezko egitekoak.
5. blokea. Ikuskizun eszenikoak jasotzea.	<ul style="list-style-type: none">- Testu dramatikoaren eta antzerki-ikuskizunen ezaugarriak identifikatzen ditu, eta gogoetak egiten ditu, espiritu kritikoz, haien ezaugarri eta oinarriei buruz.- Kritika eszenikoak egiten ditu, zorrotz eta sendo, terminologia egokia erabiliz.- Fenomeno artistikoaren konplexutasuna ulertzen du, eta bere ondorioak ateratzen ditu gaian eskuratutako ezagutza berriro landuz.

3. - Ebaluatzeko irizpideak

2016ko irailaren 6ko 127/2016 Dekretuan gai honi buruz dauden ebaluazio-irizpideak hartuko dira erreferentziatzat proba zuzentzeko eta baloratzeko. Proposatutakoaren artean, hauek azalduko ditugu, proposatutako ariketa-ereduan duten garrantzia dela eta:

1. Arte eszenikoen oinarrizko kontzeptuen eta antzerkiaren historiaren ezagutza sendoa eta kritikoa frogatzea bere produkzio eszenikoan erabiliz.

- Ikuskizun eszenikoen modalitate guztien aldiak, autoreak eta obra nabarmenak ezagutzen eta kokatzen ditu.
- Arte eszenikoen teknizismoak ezagutzen eta aplikatzen ditu.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

- Ondare eszenikoaren alderdiak integratzen ditu berak sortutako ikuskizun batean.
 - Euskal antzerkiaren historiaren eta jardueraren alderdi bereizgarriak ezagutzen ditu.
- 2. Identifikatu, ulertu eta azaldu egiten ditu antzezpen-forma bakoitzaren eta ikuskizun eszenikoaren oinarrizko ezaugarriak askotariko tipologiako obren azterketaren bidez.**
- Arte eszenikoen generoak identifikatzen ditu.
 - Fenomeno eszenikoaren termino espezifikoak identifikatzen eta erabiltzen ditu.
 - Ingurunean dagoen ikuskizun eszeniko bakoitza analizatzen du bere premien arabera.
- 3. Ekintza dramatikoa berregiteko, pertsonaiak diseinatzeko eta egoerak eta eszenak konfiguratzeko teknikak ezagutzea, eta proposamen eszenikoetan erabiltzea.**
- Era askotako antzerki-testuak moldatzeko eta berregiteko teknikak ezagutzen eta erabiltzen ditu.
 - Antzerki-gidoiak idazten ditu berezko markak zainduz.
 - Pertsonaiak eraiki eta era guztietako egoeretan kokatzen ditu, eta bakoitzaren berezko ekintzak garatzen.
- 4. Eszenaratze-proiektu batek dituen rol, prozesu eta faseak ezagutzea eta ulertzea, eta banako bakoitzaren atazak eta erantzukizunak baloratzea.**
- Eszenaratze-proiektu batek behar dituen rol guztien funtzioak ezagutzen ditu.
 - Askotariko atazak egiten ditu eszenaratze-proiektu batean.
 - Aintzat hartzen du konpromisoa ikuskizun eszenikoak sortzean eta erakustean.
- 5. Era guztietako testu dramatikoak eta ikuskizunak analizatzea eta iruzkinak egitea, gogoeta-jarreraz eta espiritu kritikoz.**
- Antzerki-testuen ezaugarri eta baliabide dramatikoak analizatzea eta iruzkinak egitea.
 - Antzerki-ikuskizunen ezaugarriak identifikatzen ditu, eta haiei buruzko gogoeta egiten, espiritu kritikoz.
- 6. Errealitate artistikoei buruzko oinarrizko ikerlanak egitea.**
- Lanak egiten ditu errealitate artistikoak ezagutzeko.
 - Bere ideia eta proposamen eszenikoak eraikitzen ditu besteren erduetatik abiatuta.
 - Autoretzaren eta sortze-lizentzien kontzeptua ezagutzen eta betetzen du.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

7. Adierazpen artistiko batzuk ezagutzea eta haiei buruzko iruzkinak egitea, gogoeta-jarreraz eta espiritu kritikoz, batez ere unekoak eta bere ingurukoak.

- Ikusle gisa joaten da bere inguruko adierazpen artistiko batzuk ikustera.
- Obra klasiko eta garaikideak irakurtzen ditu begirada ludikoa eta espiritu kritikoa erabiliz.
- Uneko jarduera artistikoen ezaugarriak ezagutzen ditu.
- Antzerki-ikuskizunen iruzkinak egiten ditu, jarrera kritikoz

4.- Kalifikazio-irizpideak

Probaren A eta B aukerek atal berak dituzte. Probak antzerki-obra edo -pasarte bat izango du beti, eta, harekin batera, galdera sorta bat, eta ikasleek, modu egokian erantzungo badute, pentsamendu kritikorako eta gogoetarako gaitasuna eta heldutasuna izan behar dute. 90 minutuko iraupena izango du, eta hiru atal izango ditu.

1. atala. Obraren iruzkina eta analisisa (4 puntu)

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisa:

- a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
 - Antzerki-generoa (0,5 puntu).
 - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu).
 - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu).
 - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (0,5 puntu).
- b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
 - Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa (0,5 puntu).
 - Egilearen ideia artistikoak (0,5 puntu).
 - Aزتutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den (0,5 puntu).
 - Garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (0,5 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriari buruzko ezagutzak.

2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu)

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (1 puntu).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (1 puntu).
- Testuan ageri diren ideiei buruzko iritzi pertsonala, zure eszenaratze-esperientzietan oinarritua (1 puntu).



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

3. atala. Termino teknikoetarako buruzko galderak (3 puntu)

Erantzunak argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

4.- Obra gomendatuak

1. Aristofanes: *Lisistrata*.
2. W. Shakespeare: *Hamlet*
3. Cervantes: *Gauza zoragarrien erretaula*
4. Calderón de la Barca: *Bizitza ametsa da*
5. Henrik Ibsen: *Panpinen etxea*
6. O. Wilde: *Ernesto izatearen garrantzia*
7. M. Mihura: *Hiru xistera*
8. R.M. del Valle-Inclán: *Buhame-argiak*
9. Lorca: *Bernarda Albaren etxea*
10. Bertolt Brecht: *Hirugarren Reicharen izua eta miseria («Furcht und Elend des Dritten Reiches»)*
11. Samuel Becket: *Godoten zain*
12. Harold Pinter: *Maitalea*
13. Jordi Galceran: *Gronhölms metodoa*
14. Juan Mayorga: *Azken lerroko mutila*